



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Hizkuntza Eskola Ofizialak
Escuelas Oficiales de Idiomas

EAEko HEOak

EUSKARA

AZTERKETA EREDUA

B1 MAILA

1. DOKUMENTUA: ARIKETAK

GARRANTZITSUA: Informazio gehiago daukazu honako lotura honetan:
[Proben deskribapena](#)

IRAKURRIAREN ULERMENA (20 puntu)

1. ARIKETA (5 x 0,8)

- *Osatu ondoko testua paragrafo bakoitzaren izenburua jarritz (A-H).*
- *Bi izenburu sobera daude.*
- *0 adibidea da.*

NOLA BIDAIAU ANIMALIEKIN

Batzuetan, (0) E _____.

Mirenek katu bat du, eta autobus gehienetan ezin du eraman, maletategian ez bada. Hala ere, bada gidari bat katua harekin eramaten uzten diona. Oraingo egoera zein den ikusirik, animaliekin bidaiatu behar duenak hobe du aldez aurretik ongi informatu.

HEGAZKINEAN: (1) _____.

Hegazkinez animalia baten batekin atzerrira bidaiatuz gero, norberaren pasaporteak ez ezik, animalia ere beharrezkoa da. Pasaporteak honakoa jaso behar du: animalia argi ikusten den tatuaje batekin edo txip batekin identifikaturik dagoela, eta, horrekin batera, jarrita duela errabiaren kontrako txertoa.

TRENEAN: (2) _____.

Badago animalia batekin trenez bidaiatzeko aukera, baina, beste bezeroek kontrakorik esaten ez badute; hau da, norbait aurka agertzea nahikoa da animalia trenean bidaiatzerik ez izateko. Txakur laguntzaileak dira arau horretatik kanpo dauden bakarrak.

(3) _____.

Bidaia laburretan ez da txartelik ordaindu behar txakurrak, katuak edo hegaztiak eramateagatik, baina ezin dute eserleku bat hartu. Halakoetan ez dago gehieneko pisurik, eta ez da beharrezkoa animalia kaltetan eramatea, baina txakurrek muturrekoa eraman behar dute, eta 1,5 metro baino gutxiagoko uhalarekin lotuta egon behar dira.

AUTOBUSEAN: (4) _____.

Autobusean bidaiatzea ez da eroso animalientzat. Izan ere, araudien arabera, maletekin batera joan behar dute, itxita eta segurua den kaiola eramangarri baten barnean. Eserlekuetan txakur laguntzaileek bakarrik bidaiatu dezakete. Konpainien arauetan jarri ohi dute arazoren bat badago, jabearen ardura izango dela.

AUTOAN: (5) _____

Lehenik eta behin, muga fisikoren bat behar da animalia-aren eta gidaria-aren artean. Animalia atzeko eserlekuan jar liteke, arnes eta segurtasun uhalarekin loturik, kaiola eramangarri batean -hori ere segurtasun uhalarekin loturik- edo maletategian, baina banatzeko zerbait jarrita.

Iker Tubia, *Berria* 2018-03-21 (laburtua eta moldatua)

- A. beste bidaiari-aren adostasuna behar da
- B. bidaiari-engandik aparte bidaiatu beharko dute
- C. espezie bakoitzak badu bere lekua bidaiatzeko
- D. ez ahaztu behar diren agiriak
- E. ~~gidariak erabakitzen du zer egin~~**
- F. istripu batean larri ez zauritzeko egokiena
- G. jabearekin batera bidaiatu behar dute
- H. jabeek bete behar dituzten neurriak

2. ARIKETA (6 x 0,8)

- 45 urte lanean eman ondoren, eta horietako 32 Aian, erretiroa hartu du Javi Vilches erizain kataluniarrak. Hemen duzu egin zioten elkarrizketaren pasarte bat.
- **Galderak eta erantzunak lotu behar dituzu, baina kontuan izan galderak ezin direla errepikatu eta 3 sobera daudela.**
- 0 erantzuna adibidea da.

JAVI VILCHES, AGUR PRAKTIKANTEARI

GALDERAK:

- A. Aiara etorri zinenean, alde handirik nabaritu zenuen herriaren eta hiriaren artean?
- B. Egin duzun lanaren alde on eta txarren bat aipatzekotan, zein?
- C. Hainbat medikurekin lan egin duzu, zer moduz moldatu zara haiekin?
- D. **Hizkuntza aldetik, problemarik izan zenuen?**
- E. Noiz erabaki zenuen erizaina izatea?
- F. Nolako jendea aurkitu zenuen Aiara etorri zinenean?
- G. Zein izan da erretiroa aurreratzearen arrazoia?
- H. Zer aholkatuko zenioke herriko hurrengo erizainari?
- I. Zer dela eta utzi zenuen Katalunia hona etortzeko?
- J. Zer sentitu zenuen erretiroko aurreneko goizean?

ERANTZUNAK:

0.

la salbuespenik gabe inguruko guztiek egiten zuten euskaraz, eta edadeko eta ume dezentek ez zekiten besterik egiten. Hori ikusita, garbi neukan euskara ikasi behar nuela, eta azkar. Ez zitzaidan zuzena iruditzen ez ikastea, behar-beharrezkoa zen jendea ulertzeko eta ni neu integratzeko.

1.

Banketxe batean hasi nintzen lanean 15 urte nituela, baina 21 urterekin, soldaduska egiten ari nintzela, ikasten hasi nintzen: oinarritzko ikasketen azken mailak eta, gero, karrera egiteko ikastaroa. Garai hartan konturatuta nengoen harreman hurbilagoa nahi nuela jendearekin eta lanbide hori egokia zela niretzat.

2.

Ikasten ari nintzela bisitan etorri nintzen eta, Kontxako badiarekin liluratuta, zin egin nuen hemen biziko nintzela. Eta hala izan zen. 24 urterekin lana eskaini zidaten Donostiako Ospitalean, erizainak behar baitzituzten garai hartan. Bi urte eman nituen bertan eta gero Aian aurkitu nuen postua eta etxea.

3.

Asko inpresionatu ninduen hemengoan umiltasunak eta zer pozik bizi ziren gauza gutxiarekin (batzuek, adibidez, ez zuten ezta ur berorik ere). Bizimodu xumea zuten eta, hala ere, zutena emateko prest zeuden beti. Errespetu handiz tratatzen gintuzten medikua eta biok eta, hasieratik, oso garbi neukan nik ere haiei zor niela errespetua.

4.

Hasieran, akaso, askatasuna kentzen zidan ordutegiak, eta urduri jartzen nintzen senideekin edo lagunekin elkartzeko nintzenean, abisu bat etorriko zen beldur. Baina eman, gauza asko. Kanpotik etorritako, herritartzat onartu naute, euskara ikasi izana eskertu didate, oso zuzenak izan dira nirekin.

5.

Zenbait gauza egin nahi ditudalako, osasunak uzten didan bitartean; esaterako, Done Jakue Bidea oinez egin, bide berdeak bizikletaz, Parisen denboralditxo bat pasatu frantsesa lantzen... Gazte-gazte nintzela hasi nintzen lanean eta denbora falta sentitu dut ni neu garatzeko.

6.

Lasaitasun handia eta zorretan nagoela herri honekin. Jendearekin izan dudako tratua ikaragarri ona izan da eta asko hunkitu naute agur esateko moduek, baina herriak emandakoa ez dut galduko, barruan daramat eta.

Karkara aldizkaria, 294. zk. (laburtua eta moldatua)

Erantzunak	0	1	2	3	4	5	6
Galderak	D						

3. ARIKETA (7 x 0,8)

- *Osa ezazu ondoko testua falta diren esaldiak jarritz (A-K).*
- *Esaldiak ezin dira errepikatu eta 3 sobera daude.*
- *0 hutsunea adibidea da.*

AUTOA TRUKATUZ, AURREZTU

Autoa gutxiago erabiltzeko, Ukanauto zerbitzua jarri dute martxan Uribe Kostan.

“Hemendik aurrera, autoa hartu aurretik, _____(0)_____ garraiobide hori erabiltzea beharrezkoa ote den ala ez”, Antxon Goikoetxearen hitzetan. Joan den astean jarri zuten martxan Bizkaiko inguru horretan Ukanauto zerbitzua, *car sharing* sisteman oinarrituta. Horren arabera, zerbitzuan izena eman duten pertsona guztiek eskuragarri dauden autoetako bat hartzeko eskubidea izango dute behar duten guztietan, _____(1)_____.

Etxebizitza batean bigarren ibilgailu bat egoten denean, auto horrek askotan badaezpadako funtzioa betetzen duela dio Goikoetxeak, eta Ukanauto zerbitzu hori betetzera dator. Era horretan, gainera, Uribe Kostako Mankomunitateak eskaintako datuek azaltzen dutenez, _____(2)_____, erabiltzaileak zergarik, errebisiorik eta aseguratik ordaindu beharrik ez daukalako. Autoa erreserbatzeko garaian, gainera, zenbat ordaindu beharko duen jakin ahal izango du erabiltzen duenak, _____(3)_____ aldeztu aurretik. Kilometro bakoitzeko 0,22 euroko kuota dute autoek, eta 3 eurokoa erabilera bakoitzeko. Bidaia are merkeago egiteko, _____(4)_____, eta sistema honek horretarako aukera ematen du.

Car sharing sistemaren antzekoak izan dira aurretik Euskal Herrian, Ataungo *Sarecar* kotxe elektrikoaren alokairua, esaterako. Baina, Goikoetxeak azpimarratu duenez, *Ukanauto* osotasunez diru publikoaren bidez ordaindutako era horretako lehen enpresa da. *Sarecar* zerbitzuak, gainera, auto elektrikoaren alokairua eskaintzen du, *Ukanautok* ez bezala. “_____ (5)_____, eta arazoak izango genituzke auto elektrikoak eskainiko bagenu. Edozein modutan, ez dugu aukera hau etorkizunerako baztertzeko”, dio.

Ukanautok zazpi auto dauzka gaur egun erreserbatzeko moduan, zazpi udalerrirentzat. Auto horietatik bost hibridoak dira, eta gainerako biak gasolinazkoak. Proiektua hasi besterik ez da egin oraindik, baina etorkizunean _____(6)_____, eta zerbitzua udalerriz guztietara ere zabaltzea nahi dute.

Ukanautok aste bateko ibilbidea egin du, eta _____(7)_____, jarrera ona agertu du Goikoetxeak. “Dagoeneko hamabi bazkide lortu ditugu, era honetako esperientziak egin diren lekuetan lortu ez dena”.

Lander Muñagorri, *Berria* 2011-09-29 (laburtua eta moldatua)

- A. antzeko prezioan jarri dituzte aukeran
- B. auto gehiago eskaintzea aurreikusten dute
- C. autoen bateriak kargatzeko sarea oraindik eskasa da
- D. betiere ibilgailuak libre baldin badaude
- E. bezeroak zain daude autoreen bat hartzeko
- F. dirua aurrezten da, urteko 2.500 euro inguru
- G. egingo duen bidaia zehaztu beharko baitu
- H. ~~erabiltzaileak bi aldiz pentsatuko du~~**
- I. ezinezkoa da auto gehiago eskaintzea
- J. ibilgailua partekatu daiteke
- K. oraindik balorazioa egiteko goiz bada ere

0	1	2	3	4	5	6	7
H							

4. ARIKETA (7 x 0,8)

- Liburu elektronikoei buruzko testua duzu hemen.
- **Testua osatu behar duzu (1-7) a, b edo c aukeratuz.**
- 0 adibidea da.

PAPERIK GABEKO LIBURUAK

Apirilaren 23a, Liburuaren Eguna. Liburu dendara edo hainbat herri eta hiritan jartzen dituzten azoketara joan eta liburuak erosteko eguna. Paperekoa datorkigu burura, jakina, baina apurka-apurka *e-book* edo aldaera elektronikoak tokitxoak _____(0)_____ nahi du.

Liburu arrunt baten tamainakoa da, pantaila du eta pantaila horretan irakurtzen dira Internet bidez jaitzitako liburuak. Edukiera da *e-book*aren ezaugarri nagusia, dokumentu asko _____(1)_____. Aldeko eta kontrako iritziak sortzeko gaitasuna ere badu. Hala, liburu elektronikoaren kontra daudenek diote paperezko liburuaren eta irakurlearen artean gertuko harremana _____(2)_____, eta pantailari begira egoteak begiei kalte egiten diela. Baina baieztapen hori ukatzen dutenek diote, liburu elektronikoaren kasuan, tinta elektronikoaren teknika erabiltzen dela, eta horri esker begiak _____(3)_____.

Oraingoz, formatu honek ez du arrakasta handirik izan _____(4)_____ artean. Elkar argitaletxeko Joseba Urkiolak azaldu duenez, batez ere bidaiariek, teknikoei eta teknologiazaleek jotzen dute liburu dendetara halakoak erostera. Alberdaniako Jorge Gimenezek gaineratu duenez, irakurlearen profila 35 eta 45 urte artekoa da. Gazteak erakartzeaz gain, itzulitako liburuak digitalizatzeko eskubideak lortzea da helburua.

Ez da atzo goizekoa

Liburu elektronikoa iritsi berria dela ematen du, baina _____(5)_____ 40 urte jaio zen, Gutenberg proiektuaren bitartez. Michael Hart izan zen egitasmo horren bultzatzailea, doako liburu elektronikoaren liburutegi handia egitea baitzuen amets. Liburu batzuen kasuan, egileak berak utzi ditu eskubideak; _____(6)_____, obrak ez du eskubiderik; eta gainerakoetan eskubideak eduki bai, baina hauek balioa galdu dute. Andoni Sagarna euskaltzainak Durangon egindako bileran bere iritzia eman zuen: "Aspaldi ari gara liburu digitalak egiten; egiten ez duguna, _____(7)_____, liburu digitalak saltzea da. Azken finean, kate digital horren azken pausuan dago gakoa".

R. Perez, *Gaztezulo 106. zbk.*, egokitua

0. a) berritu b) lortu c) utzi	1. a) gordetzeko ahalmena baitu b) gordetzen dituen arren c) gordetzen ikasten badu	2. a) erabat galdu dela b) ordaindu behar dela c) sortzen dela
3. a) ez direla nekatzen b) nekagarri izaten direla c) nekatzen direla	4. a) adineko pertsonen b) gazteen c) helduen	5. a) badira b) duela c) orduan
6. a) beste batzuetan b) bestela c) besterik	7. a) gainera b) izan ere c) ordea	

0	1	2	3	4	5	6	7
b							

ENTZUNAREN ULERMENA (20 puntu)

1. ARIKETA (6 x 0,8)

- Grabazioan Mikel Bringas entzungo duzu. Mikelek, emazteak eta bi seme-alabek hiru hilabete pasa zituzten Zelanda Berrian bizikletaz ibiltzen.
- Elkarrizketan bidaiari buruz hitz egiten du, baina bere **erantzunak bakarrik entzungo dituzu.**
- Mikelen **erantzun bakoitza (1-6) galdera egokiarekin lotu behar duzu (A-I).**
- Kontuan izan galderak ezin direla errepikatu eta bi sobera daudela.
- F adibidea da.



[B1-1.ariketa-Zelanda berrian bizikletaz](#)

ZELANDA BERRIAN BIZIKLETAZ

Euskadi Irratia, Mezularia, 2011-09-28 (laburtua)

GALDERAK:

- Aberatsa izan behar da horrelako bidaia bat egin ahal izateko?
- Bidaiak bi zati ditu, bidaia eta gero bloga, ezta?
- Bizikletaz zebilen jende asko topatu zenuten han?
- Mota honetako bidaia asko egin dituzue?
- Nolako harremana izan zenuten bertakoekin?
- F. Nori bururatu zitzaion Zelanda Berrira joatea?**
- Seguruenik zaila egingo zitzaizuen 2 eta 5 urteko seme-alabekin hain urrutira joatea, ezta?
- Zelanda Berria zoragarria omen da, zer dauka ba?
- Zelanda Berrira joan baino lehen, zenbat denbora eman zenuten bidaia prestatzen?

ERANTZUNAK:

Galderak:	F						
Erantzunak:	Adib.	1	2	3	4	5	6

2. ARIKETA (7 x 0,8)

- *Izaskun Kortazar, Idahon bizi den euskalduna, nazioarteko diasporako kongresuan parte hartzera etorri da. Kongresu honi buruz, bere buruari buruz eta NABO izeneko erakundeari buruz hitz egingo digu.*
- *Entzundakoaren arabera, **aukeratu erantzun zuzena (a, b edo c).***
- *0 galdera adibidea da.*



[B1-2.ariketa-Izaskun Kortazar](#)

IZASKUN KORTAZAR

Euskadi Irratia, 2011-11-05 (laburtua)

0. Zenbat denbora zeraman Izaskun Kortazarrek Euskal Herrira etorri gabe?

- a) ~~ia urtebete.~~
- b) urte erdia.
- c) urtebete baino gehiago.

1. Diasporako kongresu internazionalan...

- a) 150 herrialdetako adituak elkartu dira.
- b) Euskal Etxeetako ordezkariak elkartu dira.
- c) herrialde askotako lagunak elkartu dira.

2. Zein izan da Jardunaldien helburua?

- a) Euskal Etxeek dituzten arazoak konpontzen saiatzea.
- b) Euskal Etxeen egoeraren berri ematea.
- c) hurrengo lau urteetarako proiektua elkarrekin egitea.

3. Zergatik joan zen Izaskun Kortazar Boisera?

- a) Boisen txikitako lagunak zituelako.
- b) Euskal Herrian lanik ez zuelako.
- c) han ikastola bazegoela jakiteak animatu zuelako.

4. Zergatik egin zuen masterra?

- a) Boisera joan baino lehen prestakuntza hobetu nahi zuelako.
- b) ikastolan lanean jarraitu ahal izateko ezinbestekoa zela esan ziotelako.
- c) legezko egoeran bizi ahal izateko bertako titulazio bat lortu nahi zuelako.

5. NABO-n koordinatzailea izateaz gain, non egiten du lan Izaskunek orain?

- a) Boiseko ikastolan.
- b) Boiseko museoan.
- c) Boiseko unibertsitatean.

6. Nork osatzen du NABO erakundea?

- a) 1973tik aurrera sortu diren Euskal Etxeek.
- b) Estatu Batuetako eta Kanadako Euskal Etxeek.
- c) Estatu Batuetako Euskal Etxeek bakarrik.

7. Zein da NABO erakundearen helburua?

- a) Euskal Etxe berrienei aholku ematea eta laguntzea.
- b) Euskal Etxeen artean diru-laguntzak banatzea.
- c) Euskal Etxeen arteko elkarlana bultzatzea.

0	1	2	3	4	5	6	7
a							

3. ARIKETA (7 x 0,8)

- Irratsaio baten pasartea entzungo duzu. Bertan Zuhaitz Gurrutxagak Mexikon gertatu zitzaion istorio bat kontatzen du.
- Zuhaitzek esaten duenaren arabera, **esan ondoko esaldiak EGIA (E) edo GEZURRA (G) diren (1-7).**
- 0 esaldia adibidea da.



[B1-3.ariketa-Zuhaitz Gurrutxaga](#)

ZUHAITZ GURRUTXAGA

Euskadi Irratia, 2011-08-18 (laburtua)

		E	G
0	“Aire” izeneko kantua Los Cafres taldearena da.	X	
1	Zuhaitzek kontatzen duen istorioa Mexikora egindako azken bidaian gertatu zitzaion.		
2	Espero zuen baino lehenago itzuli zen Euskal Herrira bakarrik sentitzen zelako.		
3	Neskaren etxean bi aste pasa zituen ezer ordaindu gabe.		
4	Mexikotik Kaliforniara bidaiatu zuen lagun batekin elkartzeko.		
5	Neskak hondartza batera eraman zuen eta han ezagutu zuen “Aire” izeneko kantua.		
6	Zuhaitzek ez zuen lortu neskari muxurik ematea.		
7	Zuhaitzek pena handia sentitu zuen neskari taxitik agur esatean.		

0	1	2	3	4	5	6	7
E							

4. ARIKETA (5 x 0,8)

- Haizea Uribelarrea, Meatzaritzaren museoko zuzendaria, entzungo duzu elkarrizketan.
- Entzundakoaren arabera, **erantzun ondoko galderak**.
- 0 galdera adibidea da.

MEATZARIEN ETXEA

(Euskadi Irratia, 2012-04-02, laburtua)

0. Non dago meatzarien etxea? *Trapagaranen, Zugaztieta auzoan*

1. Noiz ireki zuten?
2. Nolakoak ziren meatzarien etxeak? (Idatzi bi adjektibo)
3. Zer dio Haizea Uribelarreak bertan bizi ziren familiei buruz?
 - a) Kopurua:
 - b) Nolakoak:
4. Zer nabarmendu nahi izan dute meatzarien etxe hau zaharberritzean?
5. Noiz arte bizi izan zen jendea etxe horretan?

IDATZIZKO ADIERAZPENA (20 puntu)

1. ARIKETA: IDAZLAN LABURRA

OHARRA (60-80 hitz / 5 puntu)

Bizi zaren kalea eta bereziki ataria askotan zikin egoten dira (futbol partidak, jaiak,...). Zuri ez zaizu gustatzen. Idatzi ohar bat bizilagunei eta bertan adierazi:

- Nor zaren.
- Zein den arazoa eta zer egin daitekeen konpontzeko.
- Proposatu elkartzeko eguna, ordua eta lekua.

2. ARIKETA: IDAZLAN LUZEA

MEZU ELEKTRONIKOA (140-160 hitz / 15 puntu)

Lagun batek e-mail hau bidali dizu:

Kaixo,

Lehengo egunean esan zenidan nekazal etxe batean pasatu zenituztela oporrak eta oso gustura. Guk bat alokatu nahiko genuke astebete pasatzeko. Esango didazu, mesedez, nolakoa zen zuen nekazal etxea eta zer moduz pasatu zenuten?

Besarkada bat,

Miren.

Erantzun lagunari beste e-mail batekin eta bertan:

- Etxea deskribatu (gela-kopurua, prezioa, egoera, ingurua).
- Kontatu zer gustatu zitzaizun gehien eta zergatik.
- Kontatu han gertatutako zerbait.
- Gomendatu lagunari etxe hori.

BITARTEKOTZA (20 puntu)

1. ARIKETA: IDATZIZKO BITARTEKOTZA

(10 PUNTU)

Iraupena: 20 min.

Zure lagun batek honako hau idatzi dizu:

Epa!

Begira, Alemaniako lagun bat etorri zait bisitan eta hemengo jaiak ezagutzea nahi dut. Badakit zure herriko festak laster izango direla eta oso giro polita egoten dela. Informazioa bilatzeko denborarik ez daukat, horregatik idazten dizut. Seguru jaien egitaraua duzuela etxean. Zein da egunik onena joateko eta zer dago? Zerbait "tipikoa" bada, hobe. Plana egiteko, gogoratu ez naizela kirolzalea, baina musikazale amorratua bai, eta, jakina, jan ere egin beharko dugu, ezta? Esango didazu. Eskerrik asko.

Lagunak esandakoa eta jaien egitaraua kontuan hartuta, erantzun lagunari (60-80 hitz) behar duen informazioa emateko (noiz joan, zer ordutan, zer egin...).

SANTA KRUTZ JAIAK (Andoain)



Erraldoiak eta buruhandiak jaiaren hasieran irtengo dira kalera

MAIATZAK 1 ASTEAZKENA

10:30 XXXIII Kros herrikoia ireteera. Bixente Huizi memoria.

11:30 Haur krosa.

12:00 Txirrindulari lasterketa Leizaur parkean.

12:00 Txalaparta saio ibiltaria eta bertso poteoa Zumea plazatik hasita.

17:30 Erreka jaitsiera. Partaideak 16:00etan elkartuko dira Bekoplazan, baltsak jaso eta Olazar aldera abiatzeko.

18:30 Herri danborrada Bekoplazatik hasita.

19:00 Auzoen arteko herri kirol liga. Bekoplazan.

MAIATZAK 2 OSTEGUNA

18:30 Bizikleta festa Zumea plazan.

18:30 Txukunak taldea eta Fino's Band Zumea plazan.

19:00 Pintxo lehiaketa.

19:00 Txistulariak kaleetan zehar.

21:45 Zezen suzkoa Olajauna paretik Juanita Alkain plazaraino.

MAIATZAK 3 OSTIRALA (SANTA KRUTZ EGUNA)

11:00 Meza.

12:00 Txakoli dastaketa elizaren parean.

14:00 Auzo bazkaria Kale Nagusian. Bakoitzak bere bazkaria eraman behar du.

19:00 Elkarleen arteko bakailao txapelketa Kale Nagusian.

23:00 Kontzertua: Niña Coyote & Chico Tornado.

2. ARIKETA: AHOZKO BITARTEKOTZA

(10 PUNTU)

Iraupena:
2 min. hitz egiteko

Zerbitzuen gaia lantzen ari dira alabaren gelan. Etxean 112 zerbitzuari buruzko eskuorri hau duzue, baina alabak ez du ondo ulertzen eta laguntza eskatu dizu.

Kontatu alabari zer den 112 zerbitzua, zertarako den eta zein kasutan erabili behar den eta zein kasutan ez.


**ONGI ERABILI
HIL EDO BIZIKOA DA**

 ezin gara hemendik atera, urez inguratuta gaude!  Bai	 Belagoara joateko errepidea ongi al dago?  Ez CARRETERAS / ERREPIDEAK T 848 423 500 carreteras.navarra.es INFO METEO meteo.navarra.es
 zenbat ibuprofeno eman behar diot?  Ez CONSULTAS SANITARIAS / OSASUN KONTSULTAK T 948 290 290 telefonodeconsejosanitario.navarra.es	 laguntza, lapurtzen ari zaizkit eta!  Bai

112 TELEFONOA EZ DA INFORMAZIOKOA
 Urgentzia eta larrialdietarako telefonoa da.
 Beharrezkoak ez diren deiek benetako urgentziako deien kudeaketa oztopatzen dute.

Facebook, Atención ciudadana Gobierno de Navarra 2018-02-09 (moldatua)

AHOZKO ADIERAZPENA (20 puntu)

1. ARIKETA: BAKARRIZKETA (10 puntu)

- Hona hemen **AISIALDIARI** buruzko argazki bat eta zenbait galdera.
- Argazkia eta galderak kontuan edukita, hitz egin gaiari buruz eta eman zeure iritzia.

- Zer iruditzen zaizu gaur egungo telebista?
- Zer ikusten duzu normalean? Noiz?
- Asko aldatu da telebista azken urteotan?
- Gogoratzen duzu txikitako edo gaztetako gustuko saioaren bat?
- Ahal izanez gero, zer aldatuko zenuke telebista hobe izateko?



2. ARIKETA: ELKARRIZKETA (10 puntu)

Maiatzeko zubia

A IKASLEA

✓ Lankideak zarete eta maiatzeko zubian elkarrekin oporretan joateko asmoa duzue.

✓ Honako hauek adosten saiatu:

- Nora
- Nola joan
- Zenbat gastatu

✓ Hauxe da zuk nahiago duzuna:

Salou
Apartamentua
Plan lasaia: hondartza...

Maiatzeko zubia

B IKASLEA

✓ Lankideak zarete eta maiatzeko zubian elkarrekin oporretan joateko asmoa duzue.

✓ Honako hauek adosten saiatu:

- Bertan zer egin
- Norekin
- Non lo egin

✓ Hauxe da zuk nahiago duzuna:

Galizia
Turismo plana: hiriak bisitatu, ondo jan...
Beste lankideei ere komentatu